

UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA



Batzarra: Ez Ohikoa

Eguna: 2019/09/05

Ordua: 19h – 19.20h

Tokia: Kofradia Zaharreko 2. Pisua

Bertaratuak:

Jarduneko Alkatea: ENERITZ BASURKO PAGOAGA (Bildu)

ARANTZA ATXURRA ARANGUREN (Bildu)

IRINA ALKORTA BEDIALAUNETA (Bildu)

PEDRO LASARTE IPARRAGIRRE (Bildu)

NAGORE BADIOLA ALBERDI (Bildu)

ARITZA ARISTONDO NATXIONDO (Bildu)

MARIA DOLORES ETXANO VARELA (EAJ)

ADRIANOSA IBARLOZA (EAJ)

AGURTZANE IRIONDO LEJARDI (EAJ)

GORKA BADIOLA ETXABURU (EAJ)

ADINA CARRIL AZKARATE (EAJ)

AITOR BASTERRETxea ALBERDI (EAJ)

Ez bertaratua:

ZUNBELTZ BEDIALAUNETA IBAIBARRIAGA (Bildu)

Idazkaria: Jose Urraza Aldayturriaga

Jarraian, Jarduneko Alkateak, azaroaren 28ko Errege Dekretu bidez oniritzitako Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoen Araudiko 90. artikuluan zehaztutakoren arabera, behar besteko quoruma dagoela egiaztatu du, eta batzordea eratutzat jo da.

Ondoren, gai zerrendako aztergaiak aztertzen hasi dira:



1.- AURREKO AKTAREN ONESPENA, EGOKI BALITZ (2019/07/24)

Jarduneko Alkate andreak galdetzen du ea batzordekideren batek akta testuari buruzko adierazpenik egin nahi ote duen. Adierazpenik ez dagoenez, 2019ko uztailaren 24ko osoko bilkuraren akta aho batez onartzen dute.

2.- UDAL LANGILEGOAREN LANPOSTUEN BALORAZIOA ONARTZEA EGOKI BALITZ

Jarduneko Alkate andreak hitza hartu du, azaldu du bilkura honetan udal lanpostuen balorazioa onartuko dela. Prozedura luze bat izan dela, 2015. urtean hasitakoa, Balorazio Mahaian onartu dela aho batez langileriaren eta talde politikoen ordezkarien artean. Jarraian seinalatzen du, atzera eginezko efektua izango dela 2019/01/01 ra, eta eragin ekonomikoa urriko nominan hasiko dala.

M^a Dolores Etxanok (EAJ) hitza hartu du, EAJ-k onartuko du lanpostuen balorazioa, hala aipatu zuela uztailan izandako batzordean, baita Balorazio Mahaian, albiste on bat da balorazioa onartzea; beraren ustez, oraindik falta zaio egonkortzea. Jarraian eskatzen du ez lagatzea langileen ordezkariekin egiten diren batzarrak, oraindik aurrera egin behar direlako hainbat deialdi: OPEak, barne promozioak, etabar.

Azken honi, Eneritz Basurkok erantzuten du langileen ordezkariekin egiten diren batzarrak oso probetxagarriak direla, eta funtzio on bat izan dutela, beraz jarraipen bat izango dute.

Segidan, puntu hau bozkutzen da eta **Udalbatzak, aho batez udal langilegoaren lanpostuen balorazioa onartzen du.**

3.- ESKARI GALDERAK

M^a Dolores Etxanok hitza hartu du, seinalatuz, 2019ko aurrekontuak iraileko bigarren hamabostaldian indarrean sartuko direla, berandu izango da han jasotako lizitazioak aurrera eramateko ekitaldiaren barruan. Proposatzen du 2020ko aurrekontua eta Ordenantza Fiskalak lantzen hastea, urtarilaren 1ean indarrean egoteko.

Eneritz Basurkok erantzuten dio lizitazio plurianualak aurreikusita daudela 2019ko aurrekontuan. Aurtengo aurrekontua egiteko, 2018ko abenduan teknikarien proposamenak prest zeuden, baina I kapitulua egiteko denbora asko behar izan da, lanpostuen balorazioa dela eta. Politikarien aldetik ahal den guztia egin da. Jarraian seinalatzen du hurrengo ekitaldian, I kapitulua egiteko, Giza Baliabidetako udal teknikari berri bat lan egiten hasi da, eta zeregin hori erraztuko du.

Etxano andreak jarraian seinalatuko duena aktan agertzea eskatzen du: 2020ko udal aurrekontuetan, langileriaren ordainsariaren Osagarri Espezifikoa igotzea partida bereziki baten.

Basurko andreak erantzuten dio 2019ko aurrekontuetan ez zegoela margen ekonomikorik igoera hori burutu ahal izateko, horrela azaldu zen uztailan egindako Negoziazio Mahaian bertaratutakoei; nolahi ere, 2020ko aurrekontuetan, igoera hori burutzeko ahalegina egingo dela seinalatzen du.

Beste aldetik, M^a Dolores Etxanok eskatzen du diru laguntzen deialdiak zabaltzea ahalik eta lehen, elkarteak diru behardun dira eta.

Eneritz Basurkok erantzuten du 2019ko aurrekontua indarrean egon bezain laster, diru laguntzen deialdiak zabalduko direla.

Eta beste gairik ez denez egon, osoko bilkura jarduneko alkate andreak amaitutzat eman du batzarra eta idazkaria naizenez, jarduneko alkatearen oniritziarekin, bertan aztertutakoa eta hartutako erabakiak jasotzeko honako akta hau egin dut.

IDAZKARIA

Jose

JARDUNEKO ALKATEA

